

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEKO Zuzendaritza Batzordea BILERA-AKTA

Eguna: 2013-04-15, astelehena **Hasiera-ordua:** 09:00 **Bukaera-ordua:** 11:45

Bertaratuak

Cristina Uriarte Toledo and., Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua
Patxi Baztarrika Galparsoro jn., Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Jokin Azkue Arrastoa jn., HPS, Euska Sustatzeko zuzendaria
Gotzon Lobera Revilla jn., HPS, Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaria
Eneko Oregi Goñi jn., HAEE-IVAPeko Euskararen zuzendaria
Miren Dobaran Urrutia and., BFAko Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia
Zigor Etxeburua Urbizu jn., GFAko Euskararen Normalizaziorako zuzendari nagusia
Andres Iñigo jn., Euskaltzaindiko ordezkaria
Joseba Erkizia jn., HABEko zuzendari nagusia
Esther Isasa and., HABEko Didaktika Zerbitzuko ordezkaria
Maite Euba Areitioaurtena and., Araba eta Bizkaiko u. e.etako irakasleen ordezkaria
Arantxa Ezeiza Trojola and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
Boris Nogales jn., EUDELeke ordezkaria, Lasarte-Oriako zinegotzia

Bertaratu ezina adierazi duena

Iciar Lamarain Cenitagoya and., AFAko ordezkaria

Aztergaiak

1. Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztea
2. 2012-12-11 eta 2013-01-07ko bileren aktak onartzea
3. 2012ko aurrekontuaren likidazioa
4. 2013ko aurrekontu-proiektua
5. 2012ko jardueraren memoria
6. 2013ko egitasmoak
7. Galdera-eskariak

Esandakoak eta erabakiak

1. Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztea

Zuzendaritza Batzordeko buruak etorritakoak agurtu ditu, eta batzordean hainbat kide berri daudenez, HABEko zuzendariak kide guztiak aurkeztu ditu, banan-banan.

2. 2012-12-11 eta 2013-01-07ko bileren aktak onartzea

Bi zuzenketa egin behar dira 2012-12-11ko aktan. Bata, *6. Zornotzako barnetegian egin beharreko lanen aurrekontuak* atalean urtea zuzentzea, eta bestea, *2. Kide-aldaketak Zuzendaritza Batzorde eta Batzorde Akademikoak* atalean, nahastuta daude hautatu berriek bete behar dituzten batzordeen izenak. Zuzenketok eginda, akta biak onartuta gelditu dira.

3. 2012ko aurrekontuaren likidazioa

2012an zehar Jaurlaritzaren diru-sarrerak aurreikusitakoak baino txikiagoak izan ziren eta ekitaldiaren erdian aurrekontu-doikuntza bat egin zen. HABEri dagokionez, Bileran banatutako materialean ikus daitekeenez, diru-sarreretan 1.568.574 jaitsi zen hasierako aurrekontua. Bestalde, ekitaldiaren amaieran 700.000 € inguru geratu ziren gauzatzeke, batik bat Hezkuntza eta Justizia hitzarmenekin lotutakoak. Soldatetan ere soberakinak izan ziren zenbait langilek erretiroa hartu ondoren ez baitira ekitaldian bertan bete lanpostuok, gerora betetzen ari badira ere. Azalpen eta galderen ondoren, 2012ko aurrekontuaren likidazioa aho batez onartu du Zuzendaritza Batzordeak.

4. 2013ko aurrekontu-proiektua

Testuinguru ekonomiko zail honetan, Eusko Jaurlaritzak 2013an diru-sarreretan % 10,8 gutxiago izango ditu 2012an baino. Hala ere, helduen euskalduntzea lehentasunetan hartuz, HABEren aurrekontuak % 4,63 jaitsiko dira. Euskaltegien jarduerari eustea izan da irizpide nagusia HABEren aurrekontu-egitasmoa egiterakoan; horrekin batera, euskalduntze-alfabetatzearen ardatz ikasleak hartzea. Horren harira, batetik, euskaltegien jarduera (udal euskaltegiarena nahiz ekimen sozialekoena) finantzatzeko hitzartuta ditugun laguntza-moduluei osorik eta jaitsierarik gabe eustea aurreikusten da proiektuan, eta, bestetik, ikasleentzako zuzeneko diru-laguntzen sistema berriro ezartzea, ikasleen motibazioan eta ikasprozesuan pizgarri dela frogatu baita. 2012an bertan behera utzia zen beka-sistema hori berreskuratzeko, 700.000 €-ko partida aurreikusi da. Kontzeptu hori 2013ko aurrekontuan berreskuratzeko ahalegin handia egin behar izan du Jaurlaritzak. Ikasleentzako diru-laguntza horiek, jakina, aurrekontu berriak Lege Biltzarrean onartzearen pentzutan daude, aurrekontu luzatuan ez baitaude.

Euskal etxeentzako laguntza deialdiari dagokionez, berriz, % 15eko jaitsiera egitea aurreikusi da. Kontuan hartu behar da euskal etxeetako euskara-eskolak, oro har, borondatezko lanean oinarrituta daudela; alegia, ez direla profesionalizatuak eta, horrenbestez, jaitsiera horrek ez duela enpleguan eragingo (euskaltegietan jaitsiera izango balitz, eragingo lukeen

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

bezala). Horregatik, HABEko zuzendariak aditzera eman du Euskara Munduan programaren bitartez, diru-laguntzaz at, euskal etxeei eskaintzen zaien zerbitzua eusteari eman zaio lehentasuna arlo honetan. Beraz, irakasleen formaziorako saioak, materialak eta aholkularitza didaktikoa oso-osorik mantenduko dira.

HABEko zuzendariaren azalpenen ondoren, galderak etorri dira eta horien gaineko azalpenak. HABEren berriazko diru-sarreretan 200.000 € gehiago ageri dira, egiaztatze-deialdiko matrikula-tasak igo egin direlako (18 eurotik 30era). Dena den, esan beharra dago igoera horren xedea ez dela diru-sarrerak igotzea izan, gastuak, neurri batean, berdintzea baizik. Egiaztatuko diren mailak gure curriculumean jasotzen direnak dira, 1.etik 4.era, bi deialdietan. HABEko zuzendariak iragarri du, bestalde, Europako Markoko A1 eta A2 mailak HEOCean jasotzeko lanketan ari dela HABE, eta, hori egin ondoren, A1 eta A2 mailak ere egiaztatzeko asmoa duela.

Gastuen atalean, HABEk euskaltegiei matrikuletan ordaindu beharreko kopuruak behera egin du, herri-langileen euskalduntzean diru gutxiago gastatu baitute erakundeek. Esan behar da herri-erakunde batzuek langileen trebakuntza espezifikoan ere hasiak direla urratsak egiten, baina arlo hori HABEren jardueratik at gelditzen dela.

2013ko HABEren aurrekontu-proiektua aho batez onartu du batzordeak

5. 2012ko jardueraren memoria

Banatutako materialean (ikus 5. aztergaiari dagokiona) bilduta dagoen informazioaren nondik norakoak adierazi ditu HABEko zuzendariak, hain zuzen ere, ondo ataletan eginiko jarduerak: sektorearen finantzaketa, ikuskatzailatza, curriculumak, materialgintza, ikasleen prestakuntza, argitalpenak, euskal etxeak, liburutegia eta Ikasbil eta Ikasten.

Ikas-irakasprozesuaren jarraipen eta ebaluazioari dagokionez, aipatu da zerbait egin beharke litzatekeela ikasleei erraztasunak emate aldera; ikasprozesuko beste zenbait arlotan hobetze eta eguneratzeak egin diren legez, arlo horretan ere balegokeelako zer hobetua. Egiaztatzeari lotuta, argitu da zertan den tutoreen zeregina.

Euskaltegiek emandako autoikaskuntzako ikastaroak finantzatzeko irizpideak ez daudela oso garbi adierazi du EUDELeko ordezkariak. Erantzun zaio gai horren gainean badaudela ratio batzuk eta horiek aplikatzen direla, ikasleen bakarkako lana, irakasleen tutoretza-orduak eta eginiko mintzasaioak kontuan hartuz.

Batzordeak aho batez onartu du 2012an egindako jardueren memoria.

6. 2013ko egitasmoak

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Gai honi buruzko daturik esanguratsuenak bileran banatutako materialean (ikus 6. aztergaiari dagokiona) biltzen dira. Krisiaren ondorioz ekitaldi gogorra izango den arren, helduen euskalduntzeko jarduerari normaltasun osoz eutsiko zaio, ohiko hiru laguntza-deialdiak eginez: udal euskaltegienezko laguntza-deialdia, ekimen sozialeko euskaltegienezko laguntza-deialdia eta euskal etxeentzako laguntza-deialdia. EUDELekin sinatutako hitzarmenaren baitan oinarrituko dira udal euskaltegiei emandako diru-laguntzak; hitzarmen hori 2009an adostu zen, aurreko urteetan sorturiko desorekak konpondu nahian ([ikusi erantsitako dokumentua](#)).

Gipuzkoako euskaltegiekin -udalen nahiz ekimen sozialekoekin- adostutako dokumentu baten berri eman du GFAko euskara-zuzendariak. ([ikusi erantsitako dokumentua](#)), eta horren gainean eztabaidatu da batzordean. Dokumentu horretan, besteak beste, aipatzen dute euskara ikastea doan izan dadin urratsak egin beharra dagoela, helduen euskalduntze-alfabetatzearen prestigioa handitu eta udaletan diru-laguntzak emateko prozedurak berraztertu. Batzorde bat ere proposatu dute udal euskaltegiak koordinatzeko.

Orobat, udal euskaltegietakako ordezkariak nahiko bakartuta daudela berretsi dute, abandonu-sentsazioa bizi dutela. Euskaltegi bakoitza bere udalaren mende egoteak lan eskerga eskatzen diela edozein ekimen aurrera aterako bada, izan ere, denbora eta ahalegin franko alferrik galtzen da. Ez daukate, esaterako, irakasleak ordezkatzeko lan-poltsa bateraturik. Duela gutxi hasi dira elkarrekin biltzen, eta urratsak egin badituzte ere, oraindik bide luzea dagoela egiteko deritzote.

Arretaz entzun dira azalpenak, eta aipatu da kontua dela nola izan litezkeen eraginkorrak udal euskaltegiak. Hizkuntza Politikarako sailburuordeak eta HABEko zuzendariak esan dutenez, doakotasunerako bidea aspaldian urratzen ari dira, hain zuzen ere, euskaltegiei ematen zaizkien diru laguntzen bitartez, ikasleek matrikulatzerakoan benetako kostua baino askoz txikiagoa ordaintzea ahalbidetzen baita. Gainera, HABEk ikasleentzako duen diru-laguntza lerroaren bitartez, maila egiaztatu ahala, ikasleek ordainduak dituzten matrikula kostuak berreskuratzen dituzte hein batean edo bestean. Bestalde, HABEren eta euskaltegien arteko loturak eta koordinazio-egiturak 1983ko HABEren sorrerako Legean jasota daude: batzorde hau bera eta Batzorde Akademikoa (euskaltegi-sare guztietako ordezkariak biltzen dituena), kasu. Baina Legeak berak jasotzen dituen organo ofizialez gainera, badira hainbat batzorde eta lantalde, eta ahaleginak egiten dira sektoreko eragile guztiak biltzeko: ekimen sozialeko euskaltegiekin Bitariko batzordea du eratua HABEk, gai finantzarioak tratatzeko; udal euskaltegien finantza-kontuak hitzartzeko, EUDELeko batzordea; sare guztietako ordezkariekin, Azterketa batzordea, eta abar. Hortik aparte, egiten dira berariazko bilerak eta lan-saioak euskaltegiekin. Esaterako, udal euskaltegien proposamen bat ontzat hartuz, udal euskaltegietakako irakasleen topaketa-mintegi bat antolatzen lagunduko die aurten HABEk.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Puntu honetan azaldutako kezka eta eskakizun horietako batzuk, bestalde, 6. puntuko dokumentazioan aipatzen den araudia (2003ko Dekretua, HEOCari buruzko Agindua, Egiatzatze-gintzari buruzko Agindua eta 2005eko Ebazpen orokorra) berritzeko gogoetan txertatu beharko lirateke, eztabaidagarria den arren zenbait proposamen aztertzeko foro egokia ote den batzorde hau.

ekin elkarlana bultzatzeko, aukera ederra izan liteke Ikasbilen eskegi berri den *Irakurketa mailakatuaren* materiala, euskaltegi guztiek egin baititzake ekarpenak denen probetxurako.

Aurrera begira, A1 eta A2 mailei dagokien balioa eman beharra dagoela esan da, Europako Erreferentzia Markoari jarraiki egiaztatze-sisteman txertatuz. Izan ere, ez dute erreferentzia bakar izan behar C1, EGA edo 3. maila edo goragokoek; maila apalagokoek ere izan beharko lukete errekonozimendua gizartean. A1 eta A2ren harira, aztertzea da euskaltegiek zer paper joka dezaketen maila horien egiaztatzean. Orobat, hausnartu beharko genuke HABEko deialdiak irekiak izateko aukera.

Hitzarmenei dagokienez, Euskaltzaindiarekin duena zabaltzeaz gain, aurki Kataluniako Generalitatearekin sinatuko du HABEk beste hitzarmen bat, etorkizuneko erronkei elkar hartuta aurre egiteko. Hitzarmen horren xede nagusia de Centre de Documentació eta HABEko liburutegia elkarlanean jardutea, bereziki bibliografia eta dokumentazioaren alorretan eta komunak zaizkien jakintzagaien alorrean.

20013ko egitasmoak ere aho batez onartuta geratu dira.

7. Galdera-eskariak

Euskaltzaindiko ordezkariak adierazi duenez, Europako Markoa hitzetik hortzera aipatzen den arren, egiaztagirien izenetan nahas-mahas handia dago: 3. maila, C1, EGA... Egiastagirien izenak batzera jo beharko litzatekeela adierazi da, Europako nomenklaturari garrantzia emanez.

Batzorde Akademikorako kide berria proposatu eta onartu da: Idoia Goñi, Ilazki euskaltegikoa.

Horrenbestez, amaiera eman zaio bilerari.